

2017ko martxoaren 22an ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 1

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK : M^a Jesus Arruabarrena

Asier Iburguren

Arkaitz Iruretagoiena

Sergio Cubero

Igor Iturain

Hodeiza Sallen

Eñaut Guruzeaga

Aitor Arregi

Kontxi Lazkano.

Jon Ander Azpiroz, ez da bertaratu.

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2016ko abenduaren 21ean eginiko Udalbatzarraren Akta ontzat emanda aho batez.

2. -AA.SS.-en Berrikusketaren 4. Aldaketa: “ Ordenantzeta 35 y 37 artikulok eta Gehiengo bizitzen kopuruaren izaera estrukturalari dagokiona”. Behin-behineko onarpena

AA.SS.-en Berrikusketaren 4. Aldaketa: “ Ordenantzeta 35 y 37 artikulok – Gehiengo bizitzen kopuruaren izaera estrukturalari dagokiona” dokumentuak hasierako onarpena jaso zuen 2016ko abenduaren 21ean.

Jendeurrean egon den garaian onarpenak ez du inolako alegaziorik jaso.

Idazkari-Kontuhartzaileak prozeduraren berri eman du eta , bere txostena aldekoa dela adierazi ondoren, espedienteak izan behar duen tramitazioaren berri eman du, adieraziz, Eusko Jaurlaritzako “C.O.T.P.V”-k aldeko txostena eman beharko duela gero Foru Aldundiak , bere eskuduntzako behin-betiko onarpena eman dezaion.

Guruzeagak, bere taldearen aurkako botoaren arrazoia eman du, esanaz aldaketa hau , Murias enpresaren interes partikularra asetzeko dela.

Alkateak erantzun dio, esanaz herritar gehiagoren eskaerak daudela aldaketaren sentidoan.

Bozkatu eta aldeko 6 boturekin - 4 botu kontrakoak - beraz, beharrezko gehiengo absolutoarekin

ERABAKI DA:

1.- “AA.SS.-en Berrikusketaren 4. Aldaketa: “ Ordenantzen 35 y 37 artikulok eta Gehiengo bizitzen kopuruaren izaera estrukturalari dagokiona” dokumentuari behin-betiko onarpena ematea .

2.- COTPV – ra bidaltzea beharrezkoa den txostena eman dezan, behin-betiko onarpena Foru Aldundiari eskatu aurretik

3.- Eskari-galderak

Ez da izan ez eskari ezta galderarik

Bilera, 19,35tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen du, Aian 2017ko martxoaren 22an.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK